



XXI. TOPAKETAK

"Hizkuntza ereduak II"

Bilbo, 2006ko azaroaren 16 - 17 eta 18an



AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| 1. Sarrera | 3 |
| 2. Lan egiteko prozedura | 4 |
| 3. Ikastereduak aldatu baino lehen ziurtatu behar den oinarria | 5 |
| 4. Proposamena | 6 |
| 5. Ikastetxeetan egin daitekeena | 7 |
| 6. Ikastetxeetatik kanpo egin beharrekoa | 9 |
| 7. Administrazioen erantzukizuna | 10 |
| 8. Labur bilduz | 12 |
| 9. Eranskinak | 13 |



SARRERA

SAREAN elkarteak Haur eta Lehen Hezkuntzako 162 ikastetxe publiko biltzen ditu eta bere helburuak lortzeko bidean bi norabidetatik abiatzen ditu ahaleginak:

- Ikastetxeen arteko harremanak sortu, daudenak indartu eta hedatu, sistemak dituen baliabide estrukturaletan eta Elkarteak garatuko dituen besteetan oinarrituta.
- Ikastetxeen eta Administrazioaren artean, maila ezberdineko komunikazio bideak garatu, elkarrizketa eta negoziazioa beste erakundeekin elkarlanean arituz.

SAREAN elkarteak urtean bitan antolatzen dituen Topaketak helburu hauen garapenerako ekintza garrantzitsuak izaten dira bertan gauzatzen baitira Administrazioaren aurrean aurkezten diren gaien inguruko proposamenak.

2006ko azaroaren 16, 17 eta 18an burutu dira XXI. Topaketak, Bilboko "Bolunta" egoitzan eta aztergaia "Hizkuntza ereduakII" izan da. Gai hau sakona izatetik aparte, korapilatsua ere bada eta proposamen zehatzak egitea ariketa neketsua bihurtzen da; SAREAN elkartean antzinatek ari gara ereduaren inguruko hausnarketak egiten eta XIX. Topaketetan bereziki oinarrizko proposamenak bildu genituen. Dokumentu hori izan da oraingo hausnarketaren oinarria. (Eranskin 2)

Ereduen ezarpenatik hona lan izugarria egin bada ere, gizartearen beharrak eta eskakizunak denboraren denboraz aldatu dira eta une honetan lan esparru guztietan (ikastetxeak, eragile sozialak, Administrazioa...) planteatzen den erronkari erantzun egokia emateko proposamenak biltzen ari dira.

Eusko Legebiltzarrak, ikastereduen ibilbidea eta ISEI-IVEIk egindako ebaluazioa kontuan harturik, 2005eko abenduaren 2an izandako Osoko Bilkuran komunitateko bi hizkuntza ofizialetan maila orotako kompetentziak bermatuko dituen eredu berri baten azterketari ekiteko eskatu zion Hezkuntza Sailari. (Eranskin 1)

Txosten honetan jasotzen diren proposamenak XXI. Topaketetan egindako hausnarketaren ondorio dira eta horien bitartez SAREAN elkarteak bere ekarpena gehitu nahi dio beste erakundeen lanari.



LAN EGITEKO PROZEDURA

Topaketen ezaugarri nagusia gaiak aztertzeko erabiltzen den dinamika da. Garrantzi handia ematen zaio parte hartzeari eta ihardunaren diseinoan hau ahalbidetzea zaintzen da bereziki.

XXI. Topaketetan ohi dugun eskemari jarraitu diogu ondoko ekintzekin:

1. Topaketetan landu behar den gaiari buruzko oinarrizko dokumentazioa (XIX. Topaketen ondorioak) aldez aurretik ikastetxeetara bidali da.
2. Oinarrizko dokumentua aztertu baino lehen aditu baten parte hartzea; aldi honetan Uri Ruiz Bikandi andereak "*Hizkuntza ereduak, kohesio soziala eta aniztasuna*" hitzaldian bere ikuspuntutik ereduaz hitz egiterakoan sor daitezkeen zalantzak agerian utzi zituen.
3. Lan-talde txikietako hausnarketa ondoko erreferentziekin egiten da: ikastetxeetan gaur egun egiten dena, nabarmentzen diren beharrak edota eguneroko jardunean aurkitzen diren zailtasun, zalantza eta arazoei aurkitutako irtenbideak. Lan-talde bakoitzak bere proposamenak jasotzen ditu.
4. Talde handian egindako bateratze-lana. Lan-talde bakoitzak proposatutakoa aurkeztu ondoren beste ekarpenak egiteko aukera zabaltzen da.

Lehen esan bezala, XIX. Topaketetan hizkuntza ereduak aztertu ziren eta bigarren hausnarketa honetan aurretik egindako proposamenak abiapuntu izan dira; denon azterketa egin ondoren berriro antolatu dira proposamen batzuetan beharrezkoak ziren ñabardurak gehitzen.

Proposamen guztiak biltzen dituen txostena elaboratzen da eta SAREAN kideei eta Topaketetan parte hartu duten guztiei WEB gunearen bidez helarazten zaie. Administrazioaren arduradunei ere aurkezten zaie.



IKASTEREDUAK ALDATU BAINO LEHEN

Euskal Eskola Publikoaren legeak bere 18. atalean holan azaltzen du ikastetxeetako ihardueraren helburua hizkuntzei dagokionez:

Euskara eta gaztelania nahitaez sartuko dira euskal eskola publikoan gara daitezen irakaskuntza-programetan, bi hizkuntzen ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena benetakoa izan eta gutxienez ohizko harremanetarako eta erabilerako hizkuntza gisa erabili ahal izan daitezen.

Euskalduntze prozesuan ereduaren sistemak aurrerapen handia suposatu duen arren, azken urteetan gero eta nabariagoa da ez dela egokitzen mende honetako gizarte pluralak aldarrikatzen dituen eskakizunetara. Bestalde, egindako frogan (B2) emaitzek aldaketa egiteko beharra areagotu dute. Hori dela eta bai Administrazioa bai beste erakundeak ere ahaleginak egiten ari dira ahalik eta proposamen gehien mahai gainean jartzeko.

Txosten honetan biltzen diren proposamenek oinarri trinkoa behar dute, eraikiko den sistemaren arrakasta sendotasun horren arabera aurreikusten da. Beraz, badira arreta berezia eskatzen duten faktoreak:

1. Hizkuntza ereduaren inguruan edozein aldaketa egin baino lehen ezinbestekoa da ikerketa sakon eta serioa egitea, gaur eguneko ereduak izan duten bilakaera aztertuz eta baloratuz.
2. Egingo diren aldaketa edota berrikuntzek, legean azaltzen dena garatzeko aurrerapausoa suposatu behar dute eta iritzia pedagogikoetan oinarrituta egon beharko dute.
3. Zonaldeen ezaugarriak (euskaldun / erdaldun) kontuan hartu beharko dira lekuan lekuko planifikazioa egiteko.
4. Bai ikasle etorkinak bai behar bereziak dituztenak diru publikoaren sostengatutako ikastetxe guztien artean (publikoak eta itunpekoak) banatu beharko dira.
5. Administrazio ezberdinen arteko hitzarmenak beharrezkoak dira eskolatik kanpo dagoen esparrua, aisialdia etab. euskaraz bizi ahal izateko.
6. Diseinatzen den ereduaren Erkidegoko ikastetxe guztietan ezarri beharko da.
7. Plan berriak beharren arabera aurrekontua izan beharko du.

PROPOSAMENA

Ikastetxeetara hurbiltzen den edonork ikus dezake gaur egun daukagun hizkuntza eredu sistemaren emankortasuna agortu dela eta agian une aproposa dela azterketa sakonaren ondoren sistema berri bat eratzeko. XXI. Topaketetan ondoko proposamen nagusia egiten da:

Marko berri bat ezartzea, zeinetan legeak jartzen dituen helburuen lorpena bermatuko den, helburuetara heltzeko bidean malgutasuna nabarmentzen den eta kohesio soziala lortzeko egoera azaltzen den.

Bi hizkuntzen ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena benetakoa izan eta gutxienez ohizko harremanetarako eta erabilerako hizkuntza gisa erabili ahal izan daitezten.

Marko honen barruan ondoko zehaztapenak egingo lirateke:

- Ikerketak
- Hizkuntza proiektua
- Helburuen zehaztapena. "Hizkuntzen marko europearra" abiapuntu bezala hartuta.
- Ebaluazioa
- Formakuntza
- Baliabideak

Proposamenaren bigarren partea inguruari dagokio, gizarte osoari, euskararen erabilpena bultzatzeko eta erreztasunak emateko nahi duen orok euskaraz bizitzeko aukera izan dezan.

Klase orduak esparru murriztua betetzen dute ikasleen bizitzan, zeregin handia badute baina bakarrik ez dute sekulan helburua lortuko, horregatik Hezkuntza Sailaren esku dauden eskolaz kanpoko ekintzak, liburutegiak eta jantoki orduak ere euskaraz antolatu behar dira eta herri edo hiri mailan aisialdiarekin zerikusirik duten ekintzak behar-beharrezkoak dira; hori dela eta Administrazio ezberdinen arteko hitzarmenak ezinbestekoak jotzen dira.

IKASTETXEETAN EGIN DAITEKEENA

Gizarteak behar berriak planteatzen ditu etengabe eta sari askotan soluzioak bilatzeko denon begiak ikastetxeetara zuzentzen dira, han biltzen bitira egunero etorkizuneko hiri edo herritarrak. Ikasketa goiztiarrak ezartzeko dagoen joerak bultzatuta zama ikaragarria jarri da eskolaren gainean.

Baina errealitateak frogatzen digu eskolak bakar-bakarrik ezin duela arrakastaz egin lan guzti hori. Euskalduntze prozesua hasi zenetik pisurik handiena Hezkuntzak hartu du eta Eskola Publikoari dagokionez esan behar da 20 urtetan egindako aurrerapena ikaragarria izan dela, nahiz eta egindako azken frogaren emaitzak (B2) gabetasunak agerian utzi.

Dena dela, eskolak daukan erantzukizuna garrantzitsua da eta holan aitortu da XXI. Topaketetan, proposatzen den marko linguistiko berrian arlo pedagogikoari eman zaion garrantzia ikusita. Hona hemen egindako proposamenak:

1. *Hizkuntza Proiektua gauzatzea.*

Ikastetxeetan proiektu hau egiteko, prozesua argitzeko bidea markatu eta erabakiak hartzeko prozedurak ezagutu behar dira; gainera praktikatik hurbil egon behar du.

Metodologiak eztabaida sakona merezi du eta ikasleek euskaraz behar adina erreztasuna lortzeko ahozko hizkuntzarren lanketa sistematikoa ezinbesteko baldintza jotzen da.

2. *Kanpoko eta barruko ebaluazioa.*

Ikastetxeetan beharrezkoa ikusten da ebaluazioa egitea. Alde batetik eskolatze prozesuaren une desberdinetan ikasleen ezagupen maila neurtzeko (LOEk bi momentu markatzen ditu) eta bestetik ikastetxean erabiltzen diren hizkuntzen ebaluazioa (Euskara, gaztelera eta ingelesa) hainbat momentutan eta DBHren amaierara itxaron barik.

Bestalde Hizkuntza Proiektuaren koherentzia ere ebaluatu behar da.

3. *Aniztasunaren trataera*

Aniztasunaren trataerari buruzko prozedurak ezagutu eta zabaldu. Klaustrokideen formakuntza sendotu esperientziak eta proposamenak aztertu eta programa komunak esperimintatzeko.

4. *Etorkinak*

Gauden momentu historikoan herrialde batzuetako populazioaren etorrera fenomeno garrantzitsua da gure gizartean eta sasoiari gaude harrera egiterakoan plan egokiak egiteko. Eskola Publikoa

honetan ere saiatzen ari da baina ikastetxe batzuk saturatuta aurkitzen dira eta egoera honi aurre egiteko azterketa sakonen premia dago.

Hizkuntza arloan ez da nahikoa eskoletan HIPI figura jartzea, klaustro osoak jakin behar du ikasleekin hizkuntza nola landu, dauden materialak ezagutu, berriak sortu eta kultua ezberdinen arteko loturak egiteko estrategiak, ariketak etab ikasteko formakuntza jaso.

5. Formakuntza

Hizkuntza ereduaren inguruko eztabaida honetan klaustroaren garrantzia azpimarratu da. Egingo den edozein aldaketa geletan jarri behar da martxan eta arrakastatsua izango bada, ikastetxeen langileak prestatuta egon behar dute. Haien artean piso handia eramaten dutenak irakasleak dira eta horien eskaera nagusien artean erronka berriei erantzuna emateko formakuntza jasotzea da. Horrez gainera klaustroko dinaminan talde-lana, metodologiaren inguruko eztabaidak etab. ugaritzea proposatzen da orain arte egin diren esperientziek oso emaitza positiboak eman dituztelako.

Formakuntza mota guztiak ondo baloratu dira eta bereziki estimatzen da ikastetxeen arteko esperientzien trukea.

6. Familiekiko harremana

Ikastetxeak ardura hartzen du familiei ahalik eta informazio zabalena emateko baina hori ez da nahikoa, familiak ikastetxearen dimanikan parte har dezaten proiektu komunak bultzatzea proposatzen da.

Era berean Guraso Elkartearekin batera lan egiteak errezten du familien hurbiltasuna lortzeko bidea.

Eskolak egin dezakeen beste lana zera da, familiei jakinaraztea etxekoen jarrerak ikasleengan duen garrantzia.

IKASTETXEETATIK KANPO EGIN BEHARREKOA

Ikastetxeetatik kanpo baina haiekin erlazio zuzena duten hainbat estamentu edo erakunde aurki dezakegu. Batzuk Hezkuntza Administrazioaren parte badira ere Ikuskaritza adibidez, hemen egiten den sailkapena batez ere ikastetxeekin duten aholkulari funtzioari begira dago.

Hizkuntza ereduaren ordez proposatzen den marko berrian ikastetxeen lana borobiltzeko ondoko jarduerak ikusten dira egokiak:

- **BERRITZEGUNEAK**
 - Oso garrantzitsua egiten duten aholkularitza lana.
 - Ikastetxeen arteko harremanak eta esperientzien trukeak egiteko jardunaldiak, bilerak etab.
 - Formakuntza antolatzea.
 - Mintegiak antolatzea eta gidatzea.
- **IKUSKARITZA**
 - Ikastetxea ondo ezagutzea, ikaslegoa, pertsonalgora dokumentuak eta funtzionamendua ere.
 - Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren koherentzia ebaluatu eta beharrezkoa balitz moldaketak egitea aholkularitza lana egitea.
 - Ikastetxe bakoitzaren egoera soziolinguistikoa ezagutu eta helburuak lortzeko estrategia berriak planteatu.
- **UDALAK**
 - Euskararen Normalkuntzaren bidean apostu gogorra egin.
 - Ikastetxea eta Udalaren arteko proiektuak bultzatu.
 - Aisialdi arloa zaindu bereziki antolatzen dituzten ekintzak euskaraz izateko.
 - Familiei euskalduntzeko erreztasunak eskaini.
- **BESTE ADMINISTRAZIOAK**

Puntu honetan orain arte partehartze gutxi igertzen da. Foru Aldundia, Gizarte Saila, eta beste erakundek inplikazio handia eduki beharko lukete euskal gizartek elebitasunaren alde egin duen apostuan.

Behin eta berriro aipatzen da euskal hiztunen gaitasuna erabilpena baino askoz handiagoa dela; egoera honi buelta ematea eskolaren eskumenetatik aratago doa eta holan islatzen da ere XXI. Topaketetan Administrazio guztien kolaborazioa eskatzearen aldarrikapenean.

ADMINISTRAZIOAREN ERANTZUKIZUNA

Eusko Legebiltzarrak eskatuta Hezkuntza Sailak zaharkitua geratu den hizkuntza eredu sistemari alternatiba bilatu behar zaio eta horretan dihardute hainbat lan taldek.

Eskola Publikoan garai bateko ereduak gizartearen eskaera dela medio, garapena izan dute eta gaur egun diseinatutako ildoetatik urrun daude. Ereduak ezarri zirenetik hona ikastetxeetan behar berriak agertu dira eta ezinbestekoa da berriztapen sakona egitea. SAREANek antolatutako XXI. Topaketetan holan ikusi da Administrazioaren erantzukizuna marko linguistiko berri baten diseinoan:

1. *Ikerketak*

Orain arte arlo batzuetan ikerketak egon badira ere, edozein aldaketa egin baino lehen ikerketa sakonak egin beharra nabaritzen da.

Unibertsitatea eta praktika gehiago lotu ikerketetan.

2. *Helburuak*

Helburuak zikloka zehaztu beharko lirateke. Lan honetarako badago Europako hizkuntzen markoa erreferente bezala.

3. *Ebaluazioa*

Ebaluazioaren beharrezkoa ikusten da bi eremutan:

- Ikasleena: a) Edukien lorpena orokorrean
- b) Hizkuntzak: euskara, gaztelera eta ingelera bakoitzari dagokion mailan.

►Proiektuen ebaluazioa: Hizkuntza proiektua, Ingeleraren sarrera goiztiarra etab.

4. *Baliabideak*

Aspektu hau garrantzi handikoa da proiektuak errealitate arrakastatsuek bihur daitezen. Jakin badakigu Administrazioaren joera gure eskaeren kontrakoa izaten ohi dela eta zoritxarrez aldaketak proposatzen dituzten gehienetan murrizketak egiteko izaten direla.

XXI. Topaketen partaideen proposamenek nabarmentzen diren hutsuneak betetzea dute helburu eta beti errekurtsoen probetxagarritasunarekin bat datoz.

Baliabideen beharra ondoko arloetan somatzen da:

- Pertsonalgora:
 - Talde malguak egiteko

- Euskaraz saio intentsiboak antolatzeke
- Bi urteko umeen geletan 1,5 irakasle jartzeko
- Bikote pedagogikoan egiteke
- Lekuak:

Marko berri batek kontuan eduki beharko luke ikastetxeetan planteatzen den metodologia eramateko leku gehiago behar dela momentu batzuetan desdobleak egiteko, talde malguak antolatzeke, ingeleserako gela/ak edukitzeke etab.
- Material egokiak sortzeke bai hizkuntzen didaktikari dagokionez baita atzerritarren edo aniztasunaren trataeran.
- Formakuntza

Ikastetxeen lana aiparu denean argi geratu da ikastetxeetan formakuntza behar-beharrezkoa ikusten dela, ez da planteatzen aukerazkoa bezala baizik eta derrigorrezkoa klaustro osorako. Une honetan premiazkoa da ondoko arloetan:

 - Hizkuntza proiektua egiteke
 - Hizkuntzak irakasteko didaktika arloan
 - Aniztasunaren trataeran
 - Etorkinekin lan egiteko estrategiak eskuratzeko
- Zerbitzuak

Euskara indartu behar bada, ikasleen esparruak jantokia eta garraioa barne horretarako aukerak eskaini behar dituzte.
- Eskolaz kanpoko ekintzak

Euskararen erabilpena kirola eta liburutegira eraman behar da eta horretarako Administrazioak jarra behar ditu ere behar diren baliabideak.

Baliabideen banaketari dagokionez XXI. Topaketetan egiten den proposamena hauxe da, ikastetxeetako ikasleen maila sozioekonomikoa, edo ikaslego mota kontuan hartuta helburuetara heltzeko zailtasun gehien duenari gehiago eman.

5. Klaustroen egonkortasuna (Eranskin 3 - plantilak)

Ikastetxeetan urtero plantilaren kopuru handia berrizten da. Administrazioak murriztu beharko luke joera hori ikastetxeen proiektuen onerako.



6. Matrikulazioa

Antzinatek eskatzen ari gara matrikulazio prozesuaren berriztapena ikastetxe pribatuetara gertatzen den matrikula desbideraketarekin amaitzeko (Eranskin 4 - matrikula)

7. Eskola mapa

Hau eskaera zaharra da baina Administrazioa gaia luzatzen ari da. Proposatzen den marko berriak honen berriztapena eskatuko luke.

8. Marko berria ezagutarazteko kanpainak egin mezu positibo eta argiak erabiliz.

Ikastereduen gaia sakonki aztertzerakoan, "autonomia gaiarekin" jotzen dugu bete betean; jakin beharko genuke zer nolako garapena izango duen, Administrazioak norainoko autonomia eskainiko die ikastetxeei eta era berean hauek norainoko autonomia onartzeko prestutasuna duten.

Beraz, Ikastereduen haritik azterketa serioa eskatzen duten beste eremu zabaletara heltzen gara eta hartzen diren erabakiak antolakuntza orokorraren atal koordinatuen parte izan behar dutela uste dugu.

LABUR BILDUZ

Sarreran esan bezala, SAREAN elkarteak bi Topaketetan ekin dio indarrean dauden hizkuntza ereduaren egokitasuna aztertzeari. Joandako urteetan sistema honi jarraituz egin den aurrerapena uka ezina bada, gaur eguneko gizartearen ezaugarriak kontuan hartuta eta azaltzen diren premiei erantzuna eman nahi baldin badiegu esan dezakegu hizkuntza ereduaren sistemak bere onena eman duela eta beharretara hobeto egokitzen den beste bat ezartzea ezinbestekoa dela.

XIX. Topaketetan lehen hausnarketa egin zen gaiaren inguruan eta proposamenak egiteko ikastetxeen egoera errealetik abiatu zen azterketa.

XXI. Topaketetan jorratutako bidea kontuan hartu da eta sakontze lana burutu dugu aurreko proposamenak borobiltzeko. Hauxe izan dira azterketa honetan nabarmendu nahi ditugun aldeak:

- Proposamen nagusia: indarrean dauden hizkuntza ereduaren ordez, marko berri bat eratzea izan da. Marko hori hezurramitzeko alde aurretiko baldintzetatik aparte, Administrazioak Ikastetxeak eta Gizarte mailako beste erakundearen konpromisoa eta lana ezinbestekoak jotzen dira.
- Hausnarketa honetan nabarmendu da arlo pedagogikoak duen garrantzia, hizkuntzen didaktikan dauden hutsuneak, eta ahozko hizkuntzan ikasleek behar duten trebetasunaren falta nabaria. Puntu hau eztabaida interesgarriaren sorburua izan zen eta "ahozko saio intentsiboak" praktikarako berreskuratzea beharrezkotzat jotzen da.
- Eztabaidan sarritan azaldu zen Klaustroak duen garrantzia, edozein aldaketaren aurrean, azken finean irakasleak dira praktikara eramateko erantzukizuna dutenak. Nabaria ere ikastetxeen aldetik azaldu den inplikazio nahia eta gogoan arlo ezberdinetan formakuntza eskatzerakoan.
- Beste iritzi orokorra, ez bakarrik Topaketen partaideen artean baizik eta egondako hizlarien ustetan ere, zera izan da, gizarte osoaren erantzukizuna euskalduntze prozesua aurrera ateratzeko. Eskolak hizkuntzen arlo formalaren garapena du bere gain baina arlo informalean Administrazio ezberdinen elkarlana eskatzen da aisialdian, kirolean, komunikabideetan... etab. euskara errealitatea izan dadin.

Proposamen hauekin lortu nahi dena hauxe da, lagundu gure ikasleei Euskal Eskola Publikoak, hizkuntzei dagokienez bermatu nahi duen jakituria lortzen. Helburu hau lortzeko ezinbesteko tresnak baliabideak dira, noski eta egiten diren frogetan gure ikasleen maila egokia izatea, edota euskararen erabilera ugartu eta hizkuntza normalkuntzaren biden jarri nahi baldin badugu, apostu serioa egin behar dela luze barik.

Hauxe da XXI. Topaketetan parte hartu dugunok Hezkuntza Sailaren arduraduneei eskatzen dieguna, izan dezatela ausardia iritzi pedagogikoetan oinarritutako planteamendu aurrerakoiak martxan jartzeko, horretan, zalantza barik, beti bidelagun izango gaituzte.

XXXXXXXXXXXX



ERANSKINAK

1. Legebiltzarraren eskaera Hizkuntza Ereduei buruz.
2. XIX. Topaketen txostena: "*Hizkuntza Ereduek*" www.sarean.net helbidean eskuragarri.
3. Plantilak: "*Ikastetxeetako giza-baliabideen azterketa*" XV. Topaketen txostena www.sarean.net helbidean eskuragarri.
4. XVII. Topaketetan matrikularen inguruan onartutako dokumentua.

E1 - Legebiltzarraren eskaera

LEGEBILTZARRAREN ERABAKIA

Irakaskuntza sisteman finkatuta dauden hizkuntza erduei buruz (Osoko Bilkuraren erabakia)

(08/11.02.01.0070)

Eusko Legebiltzarrak, 2005eko abenduaren 2an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen onestea Ezker Abertzaleak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena.

Lehendakaritza honek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Araudiko 97. artikuluan adierazitakoari

jarraituz, agintzen du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila erabaki hori.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Izaskun Bilbao Barandica

Nik, Carmelo Barrio Barojak, Eusko Legebiltzarreko mahaiko lehen idazkari naizen honek

ZIURTATZEN DUT:

Eusko Legebiltzarrak, bi mila eta bosteko abenduaren bian egindako osoko bilkuran, aztergai izan duela legez besteko proposamen bat, irakaskuntza sisteman finkatuta dauden hizkuntza erduei buruzkoa, eta, eztabaida egin ondoren, ondoko testuaren arabera onetsi duela:

1. Otsailaren 19ko 1/93 Legeak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, bere 18.

atalean ezartzen duen moduan, euskara eta gaztelania nahitaez sartuko dira eskola publikoan gara daitezen irakaskuntza-programetan, bi hizkuntzen ahozko

zein idatzizko ulermena eta adierazpena benetakoa izan eta gutxienez ohiko harremanetarako eta erabilerako hizkuntza gisa erabili ahal izan daitezen.

2. Urte luzeko praktikak adierazi duenez, eta ISEI-IVEIk egindako ebaluazioaren

emaitzak kontutan harturik, irakaskuntzan indarrean dagoen eredu-sistemak ez du euskararen beharrezko ezagutza maila bermatzen. Horrenbestez, 93ko legeak

berak agindutakoa ere ez da betetzen euskararen kasuan; bai, ordea, gaztelaniarenean.

3. Hori horrela izanik, Eusko Legebiltzarrak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa

Sailari eskatzen dio, hezkuntza-komunitateko eragile guztiekin batera, irakaskuntza arloan komunitateko bi hizkuntza ofizialetan maila orotako kompetentziak bermatuko dituen eredu berri baten azterketari berehala ekiteko,

eta ahalik eta azkarren, praktikan jartzeko.

4. Horrekin batera, eta eredu berriaren aplikazioa ziurtatzeko bide bakar gisa, irakaskuntzako legedia berritzea eskatzen dio Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, gaurtik hasi eta 2007ko otsailera bitarteko epean.

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten dut Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, bi mila eta bosteko abenduaren bian.

Mahaiko lehen idazkaria, Carmelo Barrio Baroja. Ontzat emana, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Izaskun Bilbao Barandica

*Eranskin 3 - Matrikulari buruzko txostena. (XVII. Topaketetan onartuta)***IKASLEEN ONARPENA IKASTETXEETAN.- AURREMATRIKULAZIOA:**

Aski ezaguna da gure artean aurre-matrikula garaiak ekartzen dizkigun kezka eta buruhausteak: gurasoen bisitak, baremazioak, soberakinak, etorkizunerako zalantzak, e.a. Kasu askotan, esperientzia frustantea suertatzen da eta gatazkak nonahi agertzen dira.

Aurre-matrikula, bai ikastetxe publikoetan eta bai itunpekoetan, Zentro berberatik kudeatzen dira eta arazo ugari sortzen dira honen inguruan.

Mapa zaharkitu batean oinarriturik, kasu gehienetan, bi sareen arteko urteroko "konpetentzia" azaleratzen da eta zenbait kontzeptu ilun geratzen dira.

Bistan dago, azken urte hauetan egiten ari diren "marketina" kanpainak ia ikastetxe gehienetan eta hauek, konpetentzian oinarritzen direla esan daiteke. Ondo dago, ikastetxe bakoitzeko Hezkuntza Proiektuaz informatzea, baina benetako arrazoia bestea da, konpetentziarena hain zuzen.

Mapa dela eta, denak ez gara hasiera puntu berberatik abiatzen eta sare publikotik ezin dugu itunpekoen "eskaintza integralarekin" lehiatu. Errealitatean, gure Euskal Autonomi Erkidegoan, subsidiario geratu den sarea, sare publikoa izaten da gehienetan.

Bada garaia, gai honi heltzeko eta aurre-matrikula prozedurak ezartzen dituen mekanismoei begirada bat emateko.

Administrazioak bermatu beharko du prozedura gardena gai honen inguruan eta ziurtatu beharko du eskaintza publikoa elikatzen.

Idatzi honetatik proposamen zehatzak egingo dira aurre-matrikula prozedurak hobetzeko eta noski, gure ustez hartu behar dituen neurriak. Egoera aldatu da eta aldagai berriak sortu dira, 0-3 eta etorkinak adibidez.

Honako puntu hauek aztertuko ditu.

1. BAREMAZIOA. Arau berrien beharrak gaurko egoerari egokituak.
2. AURRE-MATRIKULA EGITEKO PROZEDURAK.
3. ADMINISTRAZIOAREN INPLIKAZIOA SARE PUBLIKOAREKIN.

MATRIKULA:INDARREAN DAGOEN ARAUTEGIA:

Lurralde bakoitzean Eskolatze Batzordea osatzen da hezkuntza sare guztiekin eta Administrazioaren ordezkariekin. Gure ustez, gehienetan protokoloa besterik ez da lantzen Batzorde horretan eta ez da geroko kontrola ematen (zer gertatzen da soberakinekin, matrikula kuotak edo kooperatibista kuotak, etorkinak,.....)

Arautegia:

- Otsailaren 4ko 14/1997 dekretua.
- Urtarrilaren 23ko 9/2001 Dekretua, eskaerak eskaintza baina handiago direnean erabili behar den baremoa ezartzen duena. 14/97 dekretua aldatuz.
- Prozedura eta egutegia ezartzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren Agindua 2004ko urtarrilaren 23koa.

Zehaztapen batzuk:

Uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak, Heziketa jasotzeko Eskubidea arautzen duenak, ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko zein printzipio orokor erabili finkatu zuen, eta hain zuzen ere 20. atalean, irizpide nagusiak zehaztu zituen:

- Bizilekuaren hurbiltasuna.
- Familiak urtean duen errenta
- Ikastetxean beste anai-arrebaren bat matrikulatuta egotea.

Otsailaren 4ko 14/1997 Dekretuan Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozesuak arautzen ditu. Dekretu honek hauxe dio:

- *(3. atala) Ikasleak onartzerakoan ezin izango da, inoiz ere, bereizkeria eragingo duen irizpiderik erabili, ideologia, erlijioa, moralak, gizartea, arraza edo jaiotza dela eta. Aurreko atalean aipatutako ikastetxeetan, ezin izango da ikastetxean sartzeko irizpidetzat sarrera-proba edo sarrera-azterketaren batean lortutako emaitza erabili.*

- *(6. atala.-) 1.- Dekretu honetan ikasleak onartzeko arautzen den prozesua diru publikoaz diharduten ikastetxeetan lehenengo aldiz sartzen diren ikasleekin erabiliko da, beti ere ikasketa hauek burutzeko: haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza, lanbide heziketako erdiko mailako heziketa zikloak eta batxilergoa.*

2.- Hezkuntza-maila beraren barruan ikasturtez edo zikloz aldatzeak ez du eragingo onartzeko prozesuan sartzea, aldaketa horrek ikastetxez aldatzea ez badakar behintzat.

3.- Dena delako ikaslea diru publikoaz diharduen ikastetxe batean sartzen denetik aurrera, ikastetxe horretan eskaintzen diren derrigorrezko irakaskuntzako ikasturte guztiak amaitu arte, bertan jarraitu ahal izatea bermatuta izango du ikasle horrek.

- *11. atala.- Ordezkaritza-organo gorena izango da ikastetxe publikoetan ikasleak onartu edo ez erabakiko duena. Itunpeko ikastetxeetan, titularrak izango dira erabaki hori hartu eta ikasleak onartzeari buruzko araudi orokorra zorrotz betetzearen erantzuleak. Eskola Kontseiluak, berriz, araudia betetzen dela bermatu beharko du.*

A) BAREMAZIOA PROZESUA

1.- BIZILEKUA IKASTETXETIK GERTU EGOTEA:

- Eremuko eskolatze-batzordea: *Eremu jakin batzuetan gertatzen ari diren arazoei (zonifikazioa, plazan esleipena, ereduaren arazoa, e.a.) aurre egiteko batzorde honi behar bezalako garrantzia eman behar zaio. Lehenik eta behin, ez dadila izan orain arte izan dena: itxurazko batzordea, non bertaratzen ziren partaideek ez zuten teoriak errepresentatzen duten sektorearen proposamenik eramaten.*

PROPOSAMENA: Batzordeko zuzendarien ordezkioak bilerara joan aurretik gainerako zuzendarien kezka, proposamenak, e.a. jasoko ditu eta batzordera eramango ditu.

2.- FAMILIEN URTEKO ERRENTA:

- Familiaren urteko errenta: *Euskal Eskola Publikoaren legeak Derrigorrezko Hezkuntza bezala izendatzen duen heinean bermatzen ditu, beharren arabera, horrek dakarren zerbitzu guztiak (jantokia, garraio, liburuak,....) Beraz Administrazioak ziurtatzen dio ikasleari plaza Derrigorrezko hezkuntza etapetan eta honek ez du suposatzen familiari bestelako karga ekonomikorik. Baremazioa egiten den ikastetxeetan ikusten da homogenizazio joera ematen dela, batipat, ikaslearen egoera sozio-ekonomikoari dagokionez. Maila ekonomiko altua edukitzen duten horiek soberakin bezala geratzen dira eta gehienak, eskola pribatuan kokatzen dira gero.*

PROPOSAMENA: Familiaren urteko errenta baremotik kentzea.

3.- IKASTETXEAN MATRIKULATUTAKO BESTE ANAI-ARREBAREN BAT IZATEA:

- *Puntuazioa eman, ikastetxeak duen ibilbidearen zentro batean (DBH) anai arreba baldin baditu.*

4.- BESTE IRIZPIDE BATZUK:

- Plazan esleipena: *Gerta daiteke ikastetxeren batean irakaskuntzaren baterako eskaria ikastetxeren eskaintza baino handiagoa izatea. Hala gertatuz gero, ikasleak bigarren eta hirugarren lekuan aukeratu dituen*

ikastetxeetara bidali beharko dute ikastetxe horiek eskaeraren kopia eta ikasleak aurkeztutako dokumentazio osoaren kopia. Beste ikastetxe batzuetatik eskaera horiek jasotzen dituzten ikastetxeek ikastetxean bertan jasotako eskaerak bezalaxe hartuko dituzte eskaera horiek, baldintza beretan barematuko dituzte eta onartutako behin-behineko zerrendan barne hartu beharko dituzte.

PROPOSAMENA: Ikastetxe bat lehen aukera bezala ipini duten ikasleek lehentasuna izan beharko lukete ikastetxe horretako plazak esleitzerakoan. Eta bete gabeko plazak bigarren aukera bezala ipini duten ikasleei eskainiko litzaieke (hori Eremuko Eskolatzeko Batzordearen zeregina litzateke), beharrezkoa izanez gero haien artean baremazioa eginez.

- **Beste irizpide batzuk:** *Derrigorrezko Hezkuntza diskriminatzaile izan ez dadin.*

PROPOSAMENA: Atal honetako B eta C irizpidea (Bazkide kooperatibista izatea eta OOGk ematen duen puntua) kentzea.

B) AURRE-MATRIKULA EGITEKO PROZEDURAK:

Jarrarian agertuko diren proposamenak bi ardatzetan oinarritu nahi ditugu :

- 1- Ikastetxeak bere Hezkuntza Proiektua familiei egoki adierazteko eta instalakuntzak bisitatzeko aukerak ziurtatzea.
- 2- Administrazioak gaiarekin hartu behar duen kontrola eta ardura eta gure ustez ematen diren arazoak ekiditeko prozedura berri bat asmatzea.

Honekin lotuta, hemendik proposatuko den mekanismoak, prozedura nahasira eramango gaitu, lehen aipatutako helburuak bate ahal izateko.

Administrazioan, badugu antzeko adibidea, diru laguntzak edo "bekak" delakoak hain zuzen. Ikastetxeak prozedura guztiaren lehenengo atala betetzen du (iragarri, dokumentazioa bildu , familiak aholkatu...) eta administrazioak berriz, bigarren atala erabakitzen du (diru laguntzen esleipenak, ordainketak...)

Prozedura:

1. Ikastetxeetan banatu eta jasoko dira aurre-matrikulatarako inprimakiak, horretarako markaturik dauden epeetan.

Garrantzitsua :

- Gurasoei 3 (hiru) aukerak jartzeko aholkatuko zaie, haiek nahi duten lehenetsunaren arabera.
 - Zenbait ikastetxetan (eredu desberdinak dituztelako), gurasoek hala nahi izanez gero, eredu bakoitzak beteko du aukera bat, eta beste ereduak bigarren bat.
 - Inprimakia, aukeratu den lehenengo ikastetxean bakarrik jasoko da. Bi tokitan aurkeztuz gero, baremaziorako duen puntuaketa galduko du.
2. Epea bukatu bezain laster, ikastetxeek zerrendatu dituzten eskaerak, familiak erantsi dituzte dokumentazioekin batera, Lurralde bakoitzeko duen Ordezkaritzara helaraziko ditu prozeduraren bigarren faseari hasiera emateko.

Honetan, Ordezkaritza bakoitzak sortuko du MATRIKULAZIO BULEGOA eta egon diren eskaerak kontuan harturik plazen ESLEIPENAK burutuko ditu, erreklamazioetarako legalak diren epeak gordez.

Behin betiko esleipenak izan eta gero, zentro bakoitzari matrikulatuen zerrenda pasatuko dio, prozedurari amaiera emanez.

Eskolatze plazen eskaintza.

Ezaguna da, batzutan administrazioak ikasleak matrikulatzeko dituen zenbait behar eta horietako bat, azken garaian ETORKINEKIN lotuta dagoena izaten da, asko eta asko epetik kanpo matrikulatzen baitira. Horregatik egokia iruditu zaigu, zentro bakoitzeko plazen eskaintzarekin batera, fenomeno honi egoki erantzun ahal izateko, honako proposamena luzatzea gai honen inguruan :

Sare publikoan 22 plaza eskaini (1 gorde lehen aipatu den fenomenorako)

Itunpeko sarean 23 plaza eskaini (2 gorde . Orain arte dagoen desoreka konpontzeko)

C) ADMINISTRAZIOAREN INPLIKAZIOA SARE PUBLIKOAREKIN.

Sarritan irakurtzen eta entzuten dugu Administrazio ordezkoen lumatik eta ahotik Sare Publiko eta Sare Pribatuen arteko gaur egun ematen den oreka. Esan ere, esaten dute hori dela asken finean haien politikaren xedea.

Aipatzen duten oreka ez dela egia ziurtatzeko Administrazio berak ematen dituen datuak ikustea besterik ez dago. Baina gure kezka hitzaren esanahian kokatu nahi dugu. Administrazio Publikoak kontzertatuko ditu berak dituen errekurtsotik kanpo geratzen diren plazak. Horregatik, ahaleginak egingo ditu azpiegitura eta pertsonal baliabide propioekin urtero ematen den eskariari erantzuteko.

Beraz, aipatzen duten oreka delako hori ez litzateke egon behar, baizik eta publikoa den sistema bultzatuz, ahalik eta plaza gehien errekurtsio propioekin bete. Itunpeko Ikastetxei eskainiko zaie Sistema Publikoak betetzen ez dituen plazak.

Gure ustez, zalantzan jarri behar da "oreka" politika hori eta Hezkuntza Sistema Publikoa inolako zalantza eta lotsarik gabe bultzatu behar du Administrazioak. Honek eskatzen du esfortzu handi bat egitea plazak sortzeko, behar bezala pertsonal eta materialez hornitzeko, eskola publikoaren alde diskurtso positibo bat egitea, eta gero, ezinezko dena Ikastetxe Pribatuekin itundu.

Azken urte hauetan ikusten ari gara Ikastetxe publikoen arteko ematen den lehia ikasleak bereganatzeko. Bi gauza azpimarratu genitzake: batetik Ikastetxeek gurasoekin komunikatzeko duten beharra Zentroaren eta Hezkuntza Proiektuaren ezaugarriak jakinarazteko eta bestetik Ikastetxe berak ume horien daturik ez daukanez zonaldeko etxe guztietara zuzentzen dituen triptikoak eta horrek suposatzen duen gastu eskerga bere gain hartuz.

PROPOSAMENAK:

1. Ezer baztertu gabe, aurre-matrikula kanpainari begira proposatzen dugu Osakidetzak txerto edota hortzak zaintzeko kanpainak egiteko jarraitzen duen eskema martxan ipintzea. Hau da, matrikula epea hasi aurretik, Hezkuntza Departamenduak eskutitza bana bidaliko die 3(edo 2) urteko ume horiei eskutitza bana non adieraziko zaien:
 - Beharrezkoa den dokumentazioa.
 - Datak.
 - Eskaintza publikoa.
 - Ibilbideak.
 - Baremoak.
 - Soberakinak egon ezker, birkokatze prozedura.
 - E.a.
2. Eskola Publikoaren aldeko kanpaina orokorra hedabideetan garaiz egitea.